



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 19a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00002. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza eta dirulaguntza publikoen deialdi guztien oinarrietan klausula bat sar dezan, laguntza edo dirulaguntzaren ematea baldintzatzekoa Memoria Historikoaren arloan indarrean dagoen legeria betetzera. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00004. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan konstituzio-desleialkeria diren jokabide larriak tipifikatzea. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoak” dituen xedeak eta helburuak betetzea ahalbidetuko duen plan estrategiko bat taxutu dezan. Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztu du (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- 11-24/POR-00026. Galdera, PSOEren eta Junts-en arteko akordioaren ondoren Kataluniatik etorritako enpresak defendatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00004. Galdera, medikuen eta erizainen lanbide-karreraren eskaerari buruzko espedienteak ebazteari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00005. Galdera, Europar Batasunak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00006. Galdera, Nafarroak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00007. Galdera, datozen lau urteetan Europako batez bestekora iristeko asmoz etxebizitzaren arloan egin beharreko inbertsio publikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00008. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko aurrez aurreko arretari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).

- 11-24/PES-00009. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko telefono bidezko arretari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00010. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Interneten bidezko ohar-zerbitzuaren desaktibazioari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00011. Galdera, I+G+b alorreko eskumenaren eskualdaketari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00012. Galdera, El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroaren irekierari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00013. Galdera, “Seme-alabak” izeneko taulan agertutako anomalia bati buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00014. Galdera, hondakinen erakundea bultzatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- INT20240002. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak (14. or.).
- INT20240002. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak (14. or.).
- INT20240003. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2024. urterako ordainsariak (15. or.).
- INT20240003. Foru parlamentarien 2024. urterako ordainsariak (15. or.).
- INT20240003. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak (16. or.).
- INT20240004. Talde parlamentarioek 2024. urtean jasoko dituzten dirulaguntzak (16. or.).
- INT20240005. Foru parlamentariak nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatik 2024. urterako ordainsari-araubidea (17. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00002. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita laguntza eta dirulaguntza publikoen deialdi guztien oinarrietan klausula bat sar dezan, laguntza edo dirulaguntzaren ematea baldintzatzekoa Memoria Historikoaren arloan indarrean dagoen lege-ria betetzera

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu-riko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita laguntza eta dirulaguntza publi-koen deialdi guztien oinarrietan klausula bat sar dezan, laguntza edo dirulaguntzaren ematea bal-dintzatzekoa Memoria Historikoaren arloan inda-rraan dagoen legeria betetzera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parla-mentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legearen 35. artikulua 1. aparta-tuak honako hau dio memoria demokratikoaren aurkako sinboloak eta elementuak direla-eta:

1. Memoria demokratikoaren aurkako elementutzat hartuko dira alxamendu militarri eta diktadurari, diktadurako buruzagiei, errepre-sio-sisteman parte hartu zutenei edo diktaduraren sostengu izan ziren erakundeei, bai eta Bigarren Mundu Gerran zehar erregimen frankistaren eta Ardatzeko potentzien arteko lankidetzako unitate zibil eta militarrei ere, gorazarre pertsonal nahiz kolektiboa egiteko mezuak dauzkaten eraikun-tzak, armarriak, intsigniak, plakak nahiz eraikin publikoetan itsatsitako edo bide publikoan dagoen beste edozein elementu edo objektu.

Artikulu horren beraren 5. apartatuak honako hau dio:

5. Memoria demokratikoaren aurkako elemen-tua izaera pribatuko edo erlijiosoko eraikin batean baldin badago baina gune publiko batetik ikus badaiteke edo erabilera publikokoa bada, eraiki-naren pertsona edo erakunde titularrek edo jabe-ek artikulu honetan ezarritako moduan kendu edo ezabatu beharko dute elementu hori.

Legearen 39. artikulua, berriz, honako hau ezartzen du dirulaguntzak kentzeari buruz:

1. Ordenamendu juridikoarekin bat, administra-zio publikoek ez diete diruz lagunduko memoria demokratikoaren aurkako jardunak sustatu edo onartzeagatik edo memoria demokratikoari eraso egiteagatik administrazio-ebazpen irmoz zehatu-tako pertsona fisiko nahiz juridikoei, publiko nahiz pribatuei, lege honen IV. tituluaren ezarritako termi-no eta epeetan.

2. Administrazio publikoek ezin izanen dute inolaz ere dirulaguntzarik eman lege honen IV. tituluaren arabera arau-hauste diren jardunak sustatzen edo onartzen edo memoria demokrati-

koari eraso egiten dion jarduera bat egiteko xedea duen jarduera bat egin dadin.

3. Artikulu honetan ezarritakoa betearazte aldera, memoria demokratikoaren arloko eskumena duen departamentuak datu-base bat taxutuko du lege hau aplikatzean administrazio-ebazpen irmoz zehatutako pertsona fisiko nahiz juridikoen, publiko nahiz pribatuen, jarraipena eta egiaztapena egiteko.

Egun, gure erkidegoan gerta liteke memoria demokratikoaren arloko legedia indarduna urratzen duten pertsona fisiko edo juridikoak Nafarroako Gobernuaren laguntza- edo dirulaguntza-deialdiren baten bidezko finantzaketa publikoa jasotzen egotea aldi berean.

Egoera hipotetiko horren aurrean, Nafarroako Gobernuak jarduketaren plan bereki bat ezarri behar du, Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legean horri dagokionez ezarritakoa betetzeko.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuaren laguntza eta dirulaguntza publikoen deialdi guztien oinarrietan klausula bat sar dezan, laguntza edo dirulaguntzaren ematea baldintzatzeko Memoria Historikoaren arloan indarrean dagoen legedia zorrotz betetzera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako toki entitateak premiatzen ditu beren eskumeneko laguntza eta dirulaguntza publikoen deialdi guztien oinarrietan klausula bat sar dezaten, laguntza edo dirulaguntza ematea Memoria Historikoaren arloan indarrean dagoen legeria zorrotz betetzearen mende jartzeko.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/MOC-00004. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan konstituzio-desleialkeria diren jokabide larriak tipifikatzea

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan konstituzio-desleialkeria diren jokabide larriak tipifikatzea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen

Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Demokrazia guztiek bereizgarri duten zuzenbide estatuaren ereduak eskatzen du bai herritarrek, bai politikariak, bai eta kargu publikodunak ere zeharo lotuta egotea legeri eta zuzenbideari. Alde horretatik, delitu larriak egiten direnean funtsezkoa da bermatzea justizia aplikatuko dela legearen aginduari loturik eta herritar guztiek legearen aurrean duten berdintasunaren arabera.

Azken urteotan legegintza-prozesu bat sumatu da, delitu batzuen indargabetzea ekarri duena, hala nola albaramendu delituarena, abenduaren 22ko 12/2022 Lege Organikoaren bitartez. Legehutsuneen sorrerak desafioak ekartzen dizkio Estatu modernoaren autobabesari, eta horrek agerian uzten du hutsune horiei modu egokian erantzuteko tipo penal berriak ezarri beharra.

Kataluniako normalizazio instituzional, politiko eta sozialerako amnistia-lege organikoaren proposamenak eztabaida piztu du. Gobernuako egungo presidente Pedro Sánchezen inbestidurarako baldintza gisa aurkezten da. Alabaina, funts-funtsezkoa da ziurtatzea amnistia-neurri oro bidezko-tasunez aplikatuko dela, ordena konstituzionalaren aurkako delitu larriak egin dituztenen erantzukizuna zalantzan jarri gabe.

Oinarrizkoa da ekiditea lege-aldaketa horrek zuzenbide-estatuaren babesaren murrizketa erakar dezan. Ildo horretan, desleialkeria konstituzionaleko delituak Kode Penalean tipifikatuz zuzenbide-estatuaren balioaren babesa indartzea proposatzen da. Horrek modua emanen luke azkenaldi honetan obratu den edozein atzerapauso zuzentzeko eta sistema judizialaren integritatea bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Espainiako Gobernuak premiatzea desleialkeria konstituzionalezko jokabide larriak tipifikatzea aintzat har dezan, halako moduz non ziurtatuko baita ordena konstituzionalaren mantentzeari

eta Estatuaren osotasunari buruzko aginduak errespetatuak izatea.

2. Espainiako Gobernuak premiatzea Desleialkeria Konstituzionala deritzon kapitulu berri bat txerta diezaion Zigor Kodearen 10/1995 Lege Organikoari. Kapitulu horretan tipifikatuko dira funtzionarioek, ordezkari publikoek nahiz pertsona juridikoek eginiko delituak, halako egintzak gauzatzeko dituztenean zeinak bideratuta baitaude erreferendum baterako deialdia egitera edo erreferendum bat egiteari dagokionez Konstituzioak ezarritako baldintzak urratzen dituen edonolako herritar-konsulta baterako deialdia egitera.

3. Espainiako Gobernuak premiatzea aipatu lege organikoan desegite-zigorra ezar dezan Desleialkeria Konstituzionalaren kapitulu jasotako delituen erantzukizuna duten pertsona juridikoen tzentzat, non eta ez den frogatzen laguntza aktiboa ematen dutela gertakariak argitzeko eta ordena konstituzionala berrezartzeko.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita “Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoak” dituen xedeak eta helburuak bete-tzea ahalbidetuko duen plan estrategiko bat taxutu dezan

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita “Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoak” dituen xedeak eta helburuak betetzea ahalbidetuko duen plan estrategiko bat taxutu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Batzordeak egingo du jarraipena.

Zioen azalpena.

Irailaren 23ko 269/2001 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioa sortu zen, Foru Berriaren 42. Legean ezarritakoarekin bat, interes sozialeko fundazio gisa, helburua izanik Foru Komunitatean egoitza duten pertsona heldu legez ezgaituak tutelatu eta zaintzea, eginkizun horiek Foru Administrazioari ebazpen judizialaren bidez egozten zaizkionean.

Urte hauetan guztietan, azkeneko bietan apur bat jaitsi bada ere, Fundazioaren jarduera handitu egin da, 2002ko 96 jarduketetatik 2022an 958 izatera iragan baita. Gainera, egiaztatu da Fundazioak bere gain hartzen dituen kasuak gero eta konplexuagoak direla, gaixotasun mental larria duten 65 urtetik beheitiko pertsonak ugaritu egin baitira eta gainera, askotan, zailtasun sozioekonomiko larriak eta gizarte-bazterketa prozesuak gehituta.

Beste alde batetik, Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko legedi zibila eta prozesala erreformatzeko ekainaren 2ko 8/2021 Legeak indarra hartzearen ondorioz Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioak bere estatutuak aldatu zituen, “Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoa” izena hartu zuen, ordura arte zuenaren ordean, eta une horretatik bere xedea izanzen zen desgaitasuna duten helduentzat juridikoki ezarritako laguntza neurriak betetzea, lortze aldera pertsona horiek behar bezala egikaritzen dutela beren gaitasun juridikoa, eta beren nortasuna erabat garatzen dutela eta jarduera juridikoa berdintasun-baldintzetan egiten dutela, beren duintasuna errespetatuta eta beren oinarrizko eskubideak zainduta.

Aldaketa horiek, zalantzarik gabe, entitate hori nabarmen ukitzen dute, haren funtzionamendurako zailtasunak gehituz.

Erabaki-proposamena:

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoaren plan estrategiko bat egin dezan, dituen xedeak eta helburuak hobekien betetzea ahalbidetuko duten antolaketa eta estrategia egokienak taxutu eta definituko dituena.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00026. Galdera, PSOEren eta Junts-en arteko akordioaren ondoren Kataluniatik etorritako enpresak defendatzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, PSOEren eta Junts-en arteko akordioaren ondoren Kataluniatik etorritako enpresak defendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola defendatuko ditu PSOEren eta Junts-en arteko akordioaren ondoren Kataluniatik alde eginda azken urteotan foru-erkidegoan kokatu diren enpresak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/PES-00004. Galdera, medikuen eta erizainen lanbide-karreraren eskaerari buruzko espedienteak ebazteari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, medikuen eta erizainen lanbide-karreraren eskaerari buruzko espedienteak ebazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Mediku eta erizainen lanbide-karreraren maila igotzeko 1.700 eskaera ebatzizgabeegi dagokienez, zer aurreikuspen darabil Osasun Departamentuak horiei erantzuna emateko? Noiz kobratu ahal izanen dute profesional horiek lanbide-karrerari lotutako pizgarri ekonomikoa?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00005. Galdera, Europar Batasunak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Europar Batasunak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrekoi eta plural baterako programa-akordioak honako hau jasotzen du hitzez hitz etxebizitzaren arloan:

“1. Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa handitzea, Europako batezbestekoarekin parekatu arte”.

Zein da etxebizitzaren arloan Europar Batasunean egiten den inbertsio publikoaren batezbestekoa?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00006. Galdera, Nafarroak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako galdera aurkezten du Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioak honako hau jasotzen du hitzez hitz etxebizitzaren arloan:

“1. Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa handitzea, Europako batezbestekoarekin parekatu arte”.

Zein da abiapuntua? Etxebizitzaren arloan gaur egun zein da egiten ari den inbertsio publikoa? Guztizko zenbatekoa eta inbertsioaren ehunekoa.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00007. Galdera, datozen lau urteetan Europako batez bestekora iristeko asmoz etxebizitzaren arloan egin beharreko inbertsio publikoari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, datozen lau urteetan Europako batez bestekora iristeko asmoz etxebizitzaren arloan egin beharreko inbertsio publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita

dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 215. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrekoi eta plural baterako programa-akordioak honako hau jasotzen du hitzez hitz etxebizitzaren arloan:

“1. Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa handitzea, Europako batezbestekoarekin parekatu arte”.

Etxebizitzaren arloan, zer inbertsio publiko egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak lau urte hauetan, Europako batezbestekora iristeko? Zehaztu guztizko kopurua eta inbertsioaren ehenkoa, urteka.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00008. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko aurrez aurreko arretari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko aurrez aurreko arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 215. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Etxebizitza Departamentuan zenbat pertsonak artatzen dituzte kontsultak eta izapideak modu presentzialean? Zein da ordutegia?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00009. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko telefono bidezko arretari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko telefono bidezko arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako galdera aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Etxebizitza Departamentuan zenbat kontsulta eta izapide artatzen dira egunero telefono bidez? Zenbat pertsona aritzen dira lan horretan, eta zein da ordutegia?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00010. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Interneten bidezko ohar-zerbitzuaren desaktibazioari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Interneten bidezko ohar-zerbitzuaren desaktibazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako galdera aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer dela-eta desaktibatu du Etxebizitza Departamentuak Interneten bidezko ohar-zerbitzua?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00011. Galdera, I+G+b alorreko eskumenaren eskualdaketari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, I+G+b alorreko eskumenaren eskualdaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Nafarroako Gobernuak zer urrats egin du gaur arte, I+G+b alorreko eskumena 6 hilabeteko epean Nafarroari eskualdatuta egon dadin? Dagoen dokumentazio guztiaren kopia jaso nahi dugu.

2.- Nafarroako Gobernuak zer urrats egitea aurreikusten du orain? Mugarrien eta daten kronograma jaso nahi dugu.

3.- Nafarroari zer ekarriko dio, kualitatiboki nahiz kuantitatiboki, I+G+b alorreko eskumena eskualdatzeak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00012. Galdera, El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroaren irekierari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroaren irekierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak noiz aurreikusten du irekitzea El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroa?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00013. Galdera, “Seme-alabak” izeneko taulan agertutako anomalia bati buruzkoa

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, “Seme-alabak” izeneko taulan agertutako anomalia bati buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari naizen honek egindako PEI-00295 eskaerari Departamentuak igorritako Excel arxiboan honako anomalia hau ikusten ahal da: "Seme-alabak" taulan, "Inkesta kopurua"-n xehakaturako zenbatekoen batura 637koa da; osotara, berriz, 686 dira. Zeri zor zaio alde hori?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-24/PES-00014. Galdera, hondakinen erakundea bultzatzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, hondakinen erakundea bultzatzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Hondakinen erakundea bultzatuko al duzu?

– Zer epe zehatzetan?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

INT20240002. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, indarrean dagoen araudiari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea Nafarroako Parlamentuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariak 2023rako araututako berberak izanen direla, 2024rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru lege bat onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INT20240002. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileek 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak 2023rako araututako berberak izanen direla, 2024rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru lege bat onesten ez den bitartean.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INT20240003. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2024. urterako ordainsariak

2024ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2024. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2023rako araututako berberak izanen direla, 2024rako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru lege bat onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INT20240003. Foru parlamentarien 2024. urterako ordainsariak

2024ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du foru parlamentarien 2024. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17., 19. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea foru parlamentarien ordainsariak 2023rako araututako berberak izanen direla, 2024rako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru lege bat onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INT20240003. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak

2024ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egindako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak 2023rako araututako berberak izanen direla, 2024rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru lege bat onesten ez den bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INT20240004. Talde parlamentarioek 2024. urtean jasoko dituzten dirulaguntzak

2024ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2024ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioendako onetsiriko dirulaguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 39. eta 42. artikuluek ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehaztea ezen, 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legea onesten ez

den bitartean, talde parlamentarioendako dirulaguntzak 2023rako onetsitako zenbatekoetan mantenduko direla, eta horiek Nafarroako Parlamentuaren 2024ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan ezarritakoaren arabera eguneratuko direla 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legea onesten denean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INT20240005. Foru parlamentariak nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatiko 2024. urterako ordainsari-araubidea

2024ko urtarrilaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, foru parlamentariak nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatiko ordainsari-araubideko zenbatekoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluek ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Eguneratzea, 2024. urterako, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubideko zenbatekoak. Honako hauek izanen dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 55,50 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 89,00 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,35 €/km.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira karga-salbuespena duten zenbatekoen mugak 2024rako: mantenu-gastuengatik, Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, 58,34 euro egun bakoitzeko, eta atzerrira eginiko bidaiak direnean, 99,91 euro egun bakoitzeko; lokomozio-gastuengatik, 0,35 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

